

8. EKINTZAK

Enpresa aurrera eramateko eta gure helburuak lortzeko hainbat ekintza gauzatu behar ditugu. Zigarro muturren bilketa da gure enpresa martxan jartzeko lehenengo ekintza nagusia. Bilketa honetarako bi estrategia erabiliko ditugu: edukiontzi bereziak jartzea eta lurreko bilketak egitea. Lehenik eta behin zigarro muturrak botatzeko edukiontzi batzuk eratuko ditugu; hauek, bi sarrera puntu izango dituzte bakoitza esaldi batekin. Adibidez, sarrera puntu batean hau ipiniko du: pizza nahiago baduzu muturra hemen bota. Eta beste sarrera puntuan beste hau: hamburgesa nahiago baduzu muturra hemen bota. Joko honekin zigarro muturrak lurrera ez botatzea sustatu nahi dugu eta gainera guk gero edukiontzia hustuko dugu zigarro mutur horiek berrerabiltzeko. Edukiontzi horiek gizarte-etxeen sarreretan, liburutegiko sarreretan edo tabernetako sarreretan ipintzea pentsatu dugu.



Beste aldetik basoak, hondartzak edo edozein natura gune garbitzeko jende topaketa egingo du. Hau da, jendea bultzatuko dugu gizakiok zaborrez kutsatzen ditugun natura guneak garbitzeko; honekin ekosistemen despoluzioa sustatu nahi dugu planeta garbiago bat izateko. Gainera, ekintza honekin jasotzen ditugun zigarro muturrak berrerabiliko ditugu gure enpresako produktu berriak eratzeko.



Egingo dugun beste ekintza eskuratutako zigarro mutur erabiliak birziklatzea eta arropa eratzea da. Lehen aipatu dugun bezala, honekin bere funtzioa bete duten zigarro muturrei beste bizitza bat ematea nahi dugu eta gainera hauek eratzen duten ekosistemen kutsadura murriztea.

Ekintza hauez gain, erretzea gure garaiko arazo oso larri bat dela uste dugunez, tabakoaren kontrako kanpaina gauzatuko dugu. Kanpaina honetan gure institutoko eta auzoko pertsoneri tabakoaren arriskuak eta albo ondorioei buruz informatuko diegu pankarta eta eskuorrien



bidez. Horrez gain, hainbat hitzaldi emango ditugu tabakismoaren eragina azalduz eta adikzio hori uzteko aholkuak emanez.

Azkenik, gure produktuak erosi duten pertsoneri gutun bat bidaliko diegu eskerrak emanez eta gutun horretan zuhaitz edo landare baten hazia egongo da, beraz,



irakurtzen bukatzen duenean basoan edo mendian gutun hori landatu ahalko du zuhaitz bat eratzeko. Ekintza honekin landareak landatzea sustatu nahi dugu, bizidun hauek garrantzia handia dutelako gure planetaren ongizaterako.